

Irlandako intxaurren hotsak?

HONDARTZA berri baten ingurua, Donostiako Zurriola, hautatu du Elkarrik Irlandako bake bideari bultzada adierazteko. Ia dena zen nobedosa larunbaterako manifestaldian. Sinn Feinen deia erantzunez antolatzailea Elkarri zen (orain arte solaskidetzat HB ezagutzen genion). Eta Irlandatik etorritako gonbidatua aldiz SDLPk Denis Haughey. Manifestaldian parte hartu zutenen zerrendak nobedade anitz eskaintzen du. EAJtik Egibar, Gorka Agirre eta Urbiola. EAtik Intxaurrea, Larreina eta Azkarra. PSEtik Oretetako alkatea Buen Lakanbra eta Arrasateko Rafaela Moreno zinegotzia. IUtik Madrazo eta Antton Karrera. EUEko Xabier Gurrutxaga. CDNko Lozano. Pertsonaia ezagunak, Julen Madariaga, Sadaba, Jon Sarasua, Zallo irakaslea, Sueskun preso ohia... eta Luis Alberto Aranberri «Amatiño». Hainbeste nobedaderekin, albiste nagusia

HBkoen falta zen. Militanteak baziren, ez gutxi gainera, baina buruzagi ezagunak falta ziren... eta ez ofizialistatzat jotzen direnak bakarrik.

IRLANDA eta elkarrizketa modan daude. Irlandarekiko parekotasun eta ezberdintasunez iritzia eman behar du bere burua analistatzat duen orok. Eta elkarrizketarekin ia mundu guztia ados dagoela ohartu gara oportetarik lanerata. Ia. Jose Antonio Aiestaranek bere eskema propioa dauka Elkarrik bultzatzen duen elkarrizketaz: euskal naziona-

lismoa ETaren amaiera gainean dela ohartuta, fenomeno horri errentagarritasuna atera nahian ari da, Elkarriren solasaldien bidez antzinako Fronte Nazionalaren bertsio berri bat osatu nahiko luke, gehiengo berri bat autodeterminazioaren inguruan antolatuz. «Asko gara —dio Aiestaranek— nazionalistek gobernaturako 'Euskadi independentea' jasangaitza egiten zaigunak eta zertan gabiltzan jakin nahi dugu. (...) Estatuak garbi finkatu behar ditu jokoaren arauak».

Baina Aiestaran da, paradoxikoki, kontrako bakarretakoa. Gainerako guz-

Sudupek esan du: «Abertzaletasunak ez du nahi ta ez independentista izan behar (...) Herri honek serioски planteatu al dezake gaur autodeterminazioa? (...)

Julio Iglesiasek ETAK bahituta egin zituen 107 egunen muga gaitutia du iadanik Aldaia enpresagizon irundarrak. Uda osoan burutu dira bere aldeko manifestaldi eta bilkurak, Donostia, Irun eta Hondarribian, eta bere askatasuna bideratzeko dirua zeraman bere adiskide baten ahalegina ere galerazi zuen poliziak Suitzako mugan. Berehala kalean izango zela zioten zurrumurruek ere ez dira egia suertatu azkenean.



tiek baitirudite elkarrizketaren ideiarekin ados. Batzuek, 1876ko Bergarako besarkada haren ondorioak behingoz gaintzeko formula litzatekeelako, eta beste zenbait justu alderantzizkoagatik, Bergarako komenioa berregin behar delako. Hala mintzatu da Jesus Egiguren sozialista gipuzkoarra. Beretzako, kurtso politiko berriaren aurrean «herri honen egoeran aldaketa funtsezkoak gertatzen ari dira». Horregatik, Ajuria Eneko itunari ino eutsiz Gasteizen agintzen duten hiru alderdiek daukate urrats sendoak eman beharra. Hitz egitearen kontra dudenei abisoa eman die: «orain arte normalkuntzari begira lortu duguna oso importantea bada, luzera begira oso gutxiak balioko digu oinarritzko helburua lortzen ez badugu: euskaldunen arteko adiskidetzea eta denok partikatutako autogobernu marko bat onartzea». Autogobernu partikatua.

UDAZKEN honek erakutsiko du EAJ barruan ikusten diren mugimenduek zenikuzirik ba ote duten azken esaldi batenekin. Uda honetako galdatan Euskal Herriaren subiranotasuna eta independentzia erabili dute jeltkideek, eta berriro laneratzearan bestelako mintzoak berritu dira. Gipuzkoako diputatu nagusi den eta EBBko lehendakari izana den Roman Sudupenera, bidenabar. «Arzalluzen papera ulertu behar da», barkatu dio Xabierri, eta ondoren zehaztu: «Abertzaleen erantzunak ez du nahi ta ez independentista izan behar (...) Herri honek serioski planteatu al dezake gaur autodeterminazioa? (...) Saia gaitezen PPrekin politika egitea».

Postu egin beharko dugu azkenean «El Gameo español» egunkariko zuzendaria dela, Jose Antonio Zarzalejos, elkarrizketaren alde publikoki mintzatu delako: «Elkarrizketa metodo gisa». Noiz, eta Irlandatik berri kezkarriak datozenean. Baina tira. Kristo guztia elkarrizketa egiteaz ados gaudenez, hasi gaitezen behingoz nor, zer eta nola zehazten. Ea zenbait berriaren atarian gauden ala ez, eta nola eguzkiak eragin aluzinazio bat

PELLO ZUBIRIA

G O R D E T Z E K O A K

EAJ ETA VATIKANOREN ARTEKO HARREMANAK GAIZKI

Xabier Arzalluz Bilboko gotzain berriaren izendapena dela eta hain gogor mintzatu bada Palenciako apezpikua den Ricardo Blazquez Bizkairako izendatzea Erroman erabakitzekeo puntuan zeukatelako izan da. Zenbait komunikabidek Blazquezen etorrea erabakitzekeo jo duten arren, jeltkideen buruzagiak oraindik aldatzeko aukerarik bazuela uste izan du, eta Retolaza bera atera da azkoitiarraren alde, partidu barruan ere tentsioak sortu duen gonezinaz kezkatuta.



ESTEPAN ALDAMIZ-ETXEBARRIAREN TARTEA

ZER IKASI DEZAKEGU ALDAIAREN BAHIKETATIK?

Sinismena baino bizitza

Jose Mari Aldaiaren bahiketaz zer ikasi dugun galdetzean, bapatean ideia tristetak pilatzen zaizkit kaskezurrean.

Lehena, inoren bizitza ezer lortzeko erabiltzeak higuina ematen didala. Baina beste erreflesiorik ere badatorkit. Heriotzak gure artean duen pisua esaterako.

Ez dakit gure arbasoek daukaten errua. Ez dakit garai bateko eliza katolikoak, tartean izan genituen jansenistek eta geroztikako itxura aldaketek utzi ote diguten heriotza gurtzeko zaretasuna.

Heriotza, bahiketa eta errespeturik eza ikusten dudanean ihes egiteko gogoia jartzen zait, ezin sinets dezaket eta 2000. urtearen atarian igarotakotzat dauzkadan kulturetako balioez ibili beharra elkarren triskantzan.

Harrapaladan datozkit guztiok Aldaia gogoratzen dudana bakoitzean eta hauxe esan nahi nuke: bizitza dela niretzako garrantzia bakar eta aparteko balioa. Gero gainerako guztiak, baita Euskadi, jainkoa, infernua eta noski, dirua, ongizatea...

Garai bateko kulturetan bizitzaren aurretik beste edozer egon zitekeen.

Jainkoa edo herria esaterako. Baina horretarako bateko zein besteko sinestun izan behar. Agian Aldaia bahituta daukatenak sinestunak izango dira. Uste izan dezakete hilez gero ere paradisuaren batera joango direla eternitaterako. Eta Aldaia hilko balute, uste izango dute agian, Aldaia paradisu berrera edo infernura bidaliko dutela.

Nere desgazirako ni ez nauzue hain sinestun. Badakit ederra izan daitekeen herrian bizi naizela. Ederra den hizkuntza badugula. Balio ederrak daukan gizartea daukat inguruan. Eta hala ere ez naiz sinestun. Ez dut uste guzti horrek bizitza bakar bat ere merezi duenik trukean.

Garai batean eusko gudariak bizitza eman dute herri honen alde. Ez nioke inori bizitzarik eskatu nahi herri honen alde. Bakoitzak bere bizitza egokien bizitza nahikoa eder iruditzen zait eta bizitza behin baino ez dugu izango. Lurpean gaudela, mundu honetako guztiak kimera barregarriak ere izan daitezke, batzutan hain gogor, itsu eta gor izango ez bagina, eta batez ere auzokoari kalte egingo ez bagenio.

Herri pribilejiatutzat daukat gure hau. Nor garen badakigu eta ez da gutxi. Hain motx eta gordin izan ordez dibertituagoak izanez gero, euskaldunek mundu osoa gurekin izango genukeen, eta hori egun ez da horrela. Pena bat da!